2022ko bagilaren 3a

BEGOÑAZPI

ASTEKARIA

IKASTOLAKO BARRIKUNTZA, BILBOTIK MUNDURA

LH 6 MAILAKO IKASLEEK SIEMENS GAMESA-REN BARRIKUNTZAREN SARIA JASO DABE ROBOT LEHIAKETAN

BALOREAK



INTERNETAREN ERABILERA

BIDE-HEZKUNTZA

BARRIKUNTZA SARIA SIEMENS GAMESA LEHIAKETAN

LH 6.mailako 11 ikaslek Siemens Gamesaren eskutik, estatu mailan antolatu dan erakustaldian parte hartu dabe. Ikastolako kaperatik online izan dan ekitaldian, ikasleek ordu erdi izan dabe robotaren jolasa azaldu eta ahozko aurkezpena egiteko. Jolasari jagokonez, robot bi zelan dabilzan azaldu dabe, azkenean martxan jarri dabezalarik. Egindako lanagaitik, ``Barrikuntzaren saria´´jaso dabe. ZORIONAK! CLICK

TEKNOLOGIA BARRIEN ERAGINA

Dakigunez, gaur egun, teknologia barri, internet eta sare sozialak puri-purian dagozan eta gure bizitzan sartu diran osagaiak dira. Ikasleentzat, oinarri-oinarrizkoa da tresna horreek eskaintzen deuskuezan onurez baliatzen ikastea zein ekarri daikezan erabilera desegoki nahiz arriskuen barri izatea. Hau dala eta, DBH 1. mailako ikasleei, Ertzaintza Ikastolara etorri eta internet nahiz sare sozialen erabilera zuzenaz mintzatu jake. CLICK

BIZITEGI ALKARTEKOEN SARI-BANAKETA

Urtero bezala, LH 6. mailako ikasleok, Bilboko Udalak eskaintzen dauazan Bide Hezkuntzako jaurdunaldietan parte hartu dogu. Zirkuito itxian egindako praktikak eta prestakuntza jaso ondoren, itsasaderreko bidegorrian ibili gara. Trafiko arauak eta segurtasun neurriak errespetatu eta betez, benetako egoera baten jardun dogu: zebrabideak, semaforoak, seinaleak, oinezkoak...danak hartu behar izan doguz kontuan. Gogoratu, etorkizun ekologikoa zein jasangarria izateko, derrigorrezkoa da bizikleta erabiltzea. CLICK

BIDE-HEZKUNTZA LH 6.MAILAN

Urtero bezala, LH 6. mailako ikasleok, Bilboko Udalak eskaintzen dauazan Bide-Hezkuntzako jaurdunaldietan parte hartu dogu. Zirkuito itxian egindako praktikak eta prestakuntza jaso ondoren, itsasaderreko bidegorrian ibili gara. Trafiko arauak eta segurtasun neurriak errespetatu eta betez, benetako egoera baten jardun dogu: zebrabideak, semaforoak, seinaleak, oinezkoak...danak hartu behar izan doguz kontuan. Gogoratu, etorkizun ekologikoa zein jasangarria izateko, derrigorrezkoa da bizikleta erabiltzea. CLICK